

AKTA / ACTA
GIZARTE KONTSEILUA/ CONSEJO SOCIAL

Deialdia egin duena Convoca	Pedro Miguel Etxenike Presidentea / Presidente
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2019ko urriak 29 / 29 de octubre de 2019 Udaletxeko Pleno aretoa / Salón de Plenos del Ayuntamiento 16:30 (1. deialdia) /16:30 h (1ª convocatoria) 17:00 (2. deialdia) /17:00 h (2ª convocatoria)
Amaiera ordua Hora de finalización	18:17an / A las 18:17 horas

GAI -ZERRENDA:
ORDEN DEL DÍA

0. Ongietorria eta aurkezpena	0. Bienvenida y presentación
1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea	1. Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior
2. Diagnostiko estrategiko komunaren Aurkezpena	2. Información sobre contenido y funciones del Consejo Social
3. Lehendakariaren eta Lehendakariordearen izendapena	3. Nombramiento de Presidente/a y vicepresidente/a
4. Plan Estrategikorako Lan Batzorderako bi kide izendapena	4. Nombramiento de la Comisión Permanente
5. Plan Estrategikorako Lan Batzordearen izendapena	5. Nombramiento de dos miembros para la Comisión de trabajo para el Plan Estratégico
6. Galderak eta eskaerak	6. Ruegos y preguntas
Saioaren amaiera	Cierre de la sesión

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

AIZPURUA	ANDER	KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL)
ANTON REMIREZ	RAUL	NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN
ARANETA	AITZOLE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA
ARRIETA	MADDI	LAB
ARZALLUS	NEKANE	UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ
ARZALLUS	MARIA SOLEDAD	HIRITARRA /CIUDADANA
BARROSO	RAQUEL	MINUSBALIASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS
BERNARAS	AMAIA	GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA

CIGANDA	PEDRO	ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION)
DIAZ	LALA	BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Asade Elkartea)
DIEZ MINTEGUI	FERNANDO	HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo)
DÍEZ MUIÑO	RICARDO	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE
ECHEZARRETA	ARRATE	FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI)
ETXENIKE	PEDRO MIGUEL	LEHENDAKARIA - PRESIDENTE (Saliente) URREZKO DOMINA – MEDALLA DE ORO
FERNANDEZ	MIREN ARANZAZU	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK)
GARCÍA	IÑIGO	MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops)
GARMENDIA	MARISOL	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE
GOIA	ENEKO	DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN
GONZALEZ	IGOR	DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN
IRAOLA	ANDONI	REAL SOCIEDAD
JOHN	BELKIS	ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS)
KORTA	KEPA	DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN
LEKUONA	PILAR	LEHENDAKARIORDEA – VICEPRESIDENCIA (entrante) ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA)
MAIZTEGUI	LOURDES	ELKARGO PROFESIONALAK - COLEGIO PROFESIONALES (ABOKATUEN ELKARGOA/COLEGIO DE ABOGADOS)
MANCISIDOR	JUAN	ADEGI
NARVAEZ	MANU	TURISMO SOZIJETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo)
ORMAZABAL	MARKEL	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU
PEREZ	ICIAR	OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea)
RODRIGUEZ	JOSÉ ANTONIO	DEUSTOKO UNIBETSITATEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO
SEMPER	BORJA	UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP
TRIGOS	ANDER	EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA)
ZARRA	OIHANA	TABAKALERA
ZUBIA	JAVIER	GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA
ZULAIKA	DANIEL	LEHENDAKARIA - PRESIDENTE (Entrante) URREZKO DOMINA – MEDALLA DE ORO

ETORRI DIRENAK / ASISTENTES: (BOTORAKO ESKUBIDERIK GABE / SIN DERECHO A VOTO)

LASHERAS	AMAIA	EMAKUMEEN KONTSEILUA - CONSEJO MUJER (Arrats)
LOPEZ	JOANA	ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS)

BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:
ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

AIZEGA	JOXE M^a	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
APAOLAZA	XABIER	OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA (Genozidioaren biktimen elkarte)
ARANBURU	HARKAITZ	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI (AMARA)
ARRILLAGA AYOZ	AINHOA	MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA
ARTOLA	GEMA	GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI)
BARBA VERA	SANTIAGO	HIRITARRA /CIUDADANO
BARCENA	FÉLIX	ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION)
BAZAKO	PERU	EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
BERZOSA	JUAN CARLOS	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE(AIETE)
CABALEIRO	BEGOÑA	INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus)
CEA	GERMÁN	KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket)
DIEZ	JOSÉ M^a	UGT
EGUREN	IÑIGO	GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (Calcuta Ondoan ONGD)
ERAÑA	JESÚS M^a	BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu)
ERKIZIA	AGUSTIN	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
FORNIES	HAIETT	GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES
GARCÍA	JOSE M^a	CCOO
GARCIA CERRATO	LETICIA ROSIBEL	HIRITARRA /CIUDADANA
GARCÍA-VELILLA	RAFAEL	UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkarte/Asociación Defensa Patrimonio)
GOMEZ SAN JOSE	MARIA TERESA	HIRRITARRA /CIUDADANA
IRIGARAY	ESTHER	GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA
LARREA	JUAN LUIS	KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS- (FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL)

LEZA	IMANOL	EUSKO TREN
LUQUIN	ELENA	GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA)
MARQUET	IÑIGO	MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN
MARTINEZ	KINO	GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA
MARTINEZ	IÑAKI	GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA
MARTINEZ DE ARTOLA	PEDRO	MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC)
MARTINEZ ETXABEGUREN	LUIS ANTONIO	HIRITARRA /CIUDADANO
MUJKA	JOSÉ GABRIEL	DIARIO VASCO
PILAPANTA	GABRIEL ESTEBAN	HIRRITARRA /CIUDADANO
RIÑÓN DIEZ	JOSE M^a	RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS
SALABERRIA	AITOR	KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia)
SALVADOR	CESAR	PASAIAKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES
SÁNCHEZ	JOSE MANUEL	AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN
SÁNCHEZ	MIKEL	AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkarte (MORLANS)
TELLEZ	OSCAR	CADENA SER
URBIETA	USOA	IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA)
VILES	JUAN RAMON	PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA CONCEJALA DELEGADA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA
ZURUTUZA	SEBASTIAN	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
		AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA)
		ELA SINDIKATUA
		KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES
		2016ko DONOSTIA FUNDAZIOA - FUNDACIÓN DONOSTIA 2016

IDAZKARIA - LEGE ZUZENDARIA / SECRETARIO - DIRECCION JURIDICA:

Juan Carlos Etxezarreta

UDAL TEKNIKARIAK / PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL

- **PARTAIDETZA/ PARTICIPACIÓN CIUDADANA:**

Amaia Agirreolea

GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /

SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

Sonia Galache

Judith Moreno

Arantza Vázquez

<p>PARTAI DETZARI BURUZKO DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN</p>	<p>Emakumezkoak / Mujeres = 17 Gizonezkoak / Hombres = 19</p>
--	---

Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

<p>Ongietorria eta aurkezpena</p> <p>Saioa 17:03an hasi da, eta Eneko Goia Donostiako alkateak ongi etorria eman die Gizarte Kontseilura bertaratu direnei.</p> <p>Ondoren, nabarmendu du guztion arten partekatu behar direla, ahal dela, etorkizunera begira hiri gisa diren erronkak; lortu beharreko helburuak eta ikuspegia partekatu behar direla, eta, alde horretatik, Gizarte Kontseilua ezinbestekoa dela, helburu eta ikuspegi horiek elkarbanatzeko.</p> <p>Alkateak, era berean, nabarmendu du hiri honetako errealitatea ordezkatuta dagoela Gizarte Kontseiluan –osorik ez bada, behar adina, behintzat baietz–, eta lan ona egin duela azkeneko lau urteetan. Ondoren, Pedro Miguel Etxenikeri eman dio hitza, eta egindako lana eskertzeko baliatu du aukera.</p> <p>17:09an, Pedro Miguel Etxenikek hartu du hitza, Gizarte Kontseiluko presidente kargua utzi behar duena bera, eta eskerrak eman dizkio alkateari, bere garaian konbentzitu zuelako ardura hori hartzeko. Hala, azaldu du gustura dagoela urteotan egindako lanarekin, egindako jardurekin eta Gizarte Kontseiluan</p>	<p>Bienvenida y presentación</p> <p>A las 17:03 comienza la sesión, Eneko Goia, alcalde de Donostia / San Sebastián da la bienvenida a las y los asistentes al Consejo Social.</p> <p>Continúa subrayando que, frente a los retos que como ciudad tenemos de cara al futuro, hay que intentar compartirlos entre todos, compartir unos objetivos y una visión a alcanzar y, en este sentido, el Consejo Social es imprescindible para compartir estos objetivos y esta visión.</p> <p>El alcalde señala así mismo que la realidad de esta ciudad se halla representada -sino totalmente, si al menos suficientemente- en este Consejo Social que durante los últimos cuatro años ha realizado un buen trabajo. A continuación, cede la palabra a Pedro Miguel Etxenike, aprovechando para agradecerle a la labor realizada.</p> <p>A las 17:09 Pedro Miguel Etxenike, Presidente saliente de Consejo Social, toma la palabra, agradece al alcalde que en su momento le convenciera para asumir esta actividad y manifiesta su satisfacción por estos años, por las actividades desarrolladas y por la disposición de las personas que participan del Consejo</p>
---	---

<p>esku hartzen duten pertsonen borondatearekin, baita hiriaz kezkatzen diren guztiarekin ere.</p> <p>Gainera, adierazi du “gustura doala jakinik etorriko direnek ere lan ederra” egingo dutela, eta barkamena eskatu du gertatu den edozer gaizki-ulertu dela eta.</p> <p>Ondoren, oroigarri txiki bat eman diote, Gizarte Kontseiluko lehendakari gisa egindako lana eskertzeko (Chillidaren lamina bat).</p> <p>17:13an, Pedro Miguel Etxeniketik agur esan eta Kepa Kortari eman dio hitza, Gizarte Kontseiluko lehendakariordea bera.</p> <p>1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea</p> <p>Kepa Kortak, gai-zerrendarekin bat, lehendabiziko puntu gisa proposatu du aurreko akta onartzea –aldeaz aurretik bidalita zegoen–, oharririk izan ezean, behintzat.</p> <p>Beste oharririk gabe onartu da akta.</p> <p>2.- Gizarte Kontseiluaren edukiari eta eginkizunei buruzko informazioa</p> <p>Era berean, gogorarazi du badela itzulpen zerbitzu bat, eta Gizarte Kontseiluko kideek naturaltasunez eman dezaketela iritzia, euskaraz zein gaztelaniaz.</p> <p>Gizarte Kontseiluko lehendakariorde eta Estrategia Bulegoko zuzendari gisa aurkeztu du bere burua, eta eskerrak eman dizkio Pedro Miguel Etxenikeri egindako lanagatik –kargua uzten duen presidentea–, baita Estrategia Bulegoko lankideei ere, eman dioten babesagatik.</p> <p>Ondoren, aurkezpen batekin lagundurik, Gizarte Kontseiluaren definizioa eman du, osaketa eta egitekoak azalduz.</p> <p>Definizioaren arabera, <i>“Donostiako Gizarte Kontseilua aholkularitza-organorik gorena da, eta bere eginkizunak honako hauek dira: informazioa ematea, aztertzea, eztabaidatzea</i></p>	<p>Social y lo mucho que se preocupan de la ciudad.</p> <p>Manifiesta además “que se va a gusto sabiendo que quienes vienen también lo van a hacer muy bien” y se disculpa por cualquier malentendido que haya podido haber.</p> <p>A continuación, se le entrega un pequeño recuerdo como agradecimiento a su labor como presidente del Consejo social (una lámina de Chillida).</p> <p>A las 17:13 Pedro Miguel Etxenike se despide cediendo la palabra a Kepa Korta, vicepresidente del Consejo social.</p> <p>1.- Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior</p> <p>Kepa Korta, de acuerdo con el orden del día, como primer punto propone la aprobación del acta, previamente enviada, en caso de que no haya ningún comentario al respecto.</p> <p>El acta se aprueba sin más comentarios.</p> <p>2.- Información sobre contenido y funciones del Consejo Social</p> <p>Recuerda así mismo que hay un servicio de traducción y que las personas participantes del Consejo Social pueden manifestar sus opiniones de forma natural, tanto en Euskara como en castellano.</p> <p>Se presenta como Vicepresidente del Consejo Social y Director de la Oficina de Estrategia y agradece la labor realizada a Pedro Miguel Etxenike, el presidente saliente, agradeciendo también al propio equipo de la Oficina de Estrategia su apoyo.</p> <p>A continuación y apoyado en una presentación, procede a explicar la definición del Consejo Social, su composición y funciones.</p> <p>Según su definición <i>“El Consejo Social de la ciudad de Donostia / San Sebastián es el máximo órgano consultivo de participación, con las funciones de información, estudio, debate y</i></p>
--	---

eta udal politikaren ildo nagusiei buruzko aholkuak ematea, gure hiriaren garapen estrategikoari, ekonomikoari, sozialari eta kulturalari eragiten dioten arloetan".

Kepa Kortaren arabera, "(...) Gizarte Kontseilua, hirian dauden partaidetzarako kontseilu sektorial, egitura eta organismo desberdinen arteko koordinaziorako espazio bat ere bada. Ikuspegi eta interes desberdinak dituzten baina helburu bera erdietsi nahi duten eragileek elkar topatuko duten partaidetzarearen ardatz nagusia izan nahi du, eta helburu hauxe du: Donostiako herritarren bizikaltatea hobetzearen alde esku hartzea eta elkarrekin lan egitea".

Gizarte Kontseiluaren funtzioen artean, honako hauek nabarmendu ditu:

- *Donostiarentzat interesgarri diren erabaki garrantzitsuetan herritarren eta herritarren erakundeen parte hartzea bultzatzea eta bideratzea.*
- *Erakunde ekonomiko, kultural, profesional eta sozialak elkarrekin eta Udalarekin lankidetzan aritu daitezela bultzatzea. Gizarte kohesioa, jasangarritasuna eta hiriaren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala.*
- *Donostiaren sustapen ekonomikoan eta sozialean eragin positiboa duten ekimen guztiak, publikoak zein pribatuak, aztertzea eta, kasu bada, horiei bultzada ematen elkarlanean aritzea.*
- *Proiektu estrategikoak sustatzea eta horien jarraipena egitea, horretarako sortutako Lan Batzordearen bitartez.*
- *Eztabaida sustatzea, ekimenak proposatzea, azterketak eginaraztea, eta Gizarte Kontseiluaren xedearekin harremana duten proposamenak edo iradokizunak Udalari egitea.*
- *Donostiako Plan Estrategikoa eztabaidatzea eta jarraipena egitea, Batzorde Delegatu horrek proposaturik.*
- *Alkateak, Udal Batzarrak edo Gizarte Kontseiluak berak eskaturiko gaien inguruko txostena egitea.*
- *Udal Ekintza Plana, ordenantzak edo izaera*

asesoramiento para la determinación de las grandes líneas de la política municipal que incidan en el desarrollo estratégico, económico, social y cultural de nuestra ciudad"-

Kepa Korta continúa señalando que "(...) El Consejo Social es, también, un espacio de coordinación de los diferentes consejos sectoriales, estructuras y organismos de participación existentes en la ciudad. Es el nudo central de la red de participación en la que se encuentran actores con visiones e intereses diversos pero con un objetivo común: implicarse y trabajar juntos para la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía donostiarra".

Y, entre las funciones del Consejo Social destaca el:

- *Promover y canalizar la participación de la ciudadanía y sus entidades en las decisiones importantes que interesan a Donostia / San Sebastián.*
- *Favorecer la colaboración de las organizaciones económicas, culturales, profesionales y sociales entre sí y con el Ayuntamiento para incidir en la cohesión social, la sostenibilidad y el desarrollo económico, social y cultural de la ciudad.*
- *Analizar, y en su caso, cooperar en el impulso de cuantas iniciativas incidan positivamente en la promoción económica y social de San Sebastián, tanto públicas como privadas.*
- *Impulsar y seguir la ejecución de los proyectos estratégicos de la mano de la Comisión de trabajo creada al efecto.*
- *Promover el debate, aportar iniciativas, encargar estudios, elevar propuestas o sugerencias al Ayuntamiento que guarden relación con el objeto del Consejo Social.*
- *El debate y seguimiento del Plan Estratégico de Donostia/San Sebastián a propuesta de la Comisión Delegada.*
- *Emitir Informe sobre los asuntos que le sean solicitados por el/la Alcalde/esa, el Pleno o el propio Consejo Social.*
- *Conocer y debatir el Plan de Actuación*

<p><i>orokorra duten beste xedapen batzuk ezagutu eta eztabaidatzea.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Udal Aurrekontuak eta beren exekuzioaren emaitzak ezagutzea eta eztabaidatzea.</i> ▪ <i>Hiriko kontseilu sektorialeiei laguntza ematea eta beren ondorio, ekimen eta erabakien berri izatea.</i> ▪ <i>Hiritarren ekimenak proposatzea, audientzia publikoen deialdiak eskatzea eta partaidetza prozesuen, herritarren kontsulten eta erreferendumen sustapena proposatzea.</i> ▪ <i>Txostenak/memoria egitea, hiriaren egoerari buruzko gogoetak, etorkizuneko aukerak eta jarduera-proposamenak azaltzeko.</i> ▪ <i>Udal Batzarrak arau organikoen bidez zehazten duen beste edozein funtzio, Gizarte Kontseiluak proposatuta.</i> <p>Gizarte Kontseiluaren egituraren barruan, Batzorde Iraunkorra eta Plan Estrategikoaren Lan Batzordea aipatzen ditu (Estrategia Bulego Teknikoarekin loturik), baita lantaldeak osatzeko aukera ere, hala nola gizarteratzeari buruzkoa, zeinarekin prestatu baita Donostiako gizarteratze premiei buruzko diagnostikoa. Batzorde horrek, haren esanetan, lan ona egin du, eta Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Donostiako Udaleko hainbat sailek ez ezik gizarte eragileek ere esku hartu dute.</p> <p>Plan Estrategikoko Batzordearen egitekoen artean dago "<i>Erakunde, gizarte eragile eta eragile ekonomikoen arteko adostasuna bultzatzea, betiere Plan Estrategikoak jasotako helburuak betetzea zein hiriarentzat eragile izan daitezkeen proiektu handiak jarraitu eta bultzatzea xede hartuta</i>".</p> <p>3.- Lehendakariaren eta lehendakariordearen izendapena</p> <p>17:20an heldu diote eguneko hirugarren puntuari, eta azaldu dute hiriko Gizarte</p>	<p><i>municipal, ordenanzas y otras disposiciones de carácter general.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Conocer y debatir los presupuestos municipales y los resultados de su ejecución.</i> ▪ <i>Prestar apoyo a los consejos Sectoriales de la Ciudad y conocer sus conclusiones, iniciativas y deliberaciones.</i> ▪ <i>Proponer iniciativas ciudadanas, solicitar la convocatoria de audiencias públicas, proponer el impulso de procesos participativos, consultas ciudadanas y referéndum.</i> ▪ <i>Elaboración de informes/memoria en la que se expongan sus consideraciones sobre la situación de la ciudad, así como de sus expectativas en el futuro y propuestas de actuación.</i> ▪ <i>Cualesquiera otras funciones que determine el Pleno municipal mediante normas orgánicas a propuesta del Consejo Social.</i> <p>Dentro de la estructura orgánica del Consejo Social, menciona a la Comisión Permanente y a la Comisión de Trabajo del Plan Estratégico (relacionada con la Oficina Técnica de Estrategia) y la posibilidad de constituir Comisiones de Trabajo, como la Comisión de Trabajo sobre Inclusión, con la cual se ha realizado un Diagnóstico sobre las Necesidades de Inclusión Social en Donostia / San Sebastián. Esta comisión ha realizado un buen trabajo en el que han participado diversos departamentos del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el ayuntamiento de Donostia / San Sebastián así como diversos agentes sociales.</p> <p>La Comisión para el Plan Estratégico tiene entre sus funciones "<i>facilitar el encuentro entre instituciones y agentes económicos y sociales para garantizar el cumplimiento de los objetivos diseñados en el Plan Estratégico así como el seguimiento e impulso de los grandes proyectos tractores</i>".</p> <p>3.- Nombramiento de Presidente/a y vicepresidente/a</p> <p>A las 17:20 se aborda el tercer punto del día, explicando que se va a elegir la Presidencia del</p>
--	---

Kontseiluaren lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dituztela. Kepa Kortak jarraitu du azaltzen, batzorde iraunkorreko kideak hautatuko direla ondoren, eta, adierazi duenaren arabera, lehendakariak, lehendakariordeak eta osoko bilkurako 13 kidek osatuko dute, kideetako edonork proposaturik eta bilkurak hautaturik.

Era berean, aurreikusita zegoen Plan Estrategikorako Lan Batzorderako bi kide hautatzea saio honetan, baina proposatu du hautaketa hori Gizarte Kontseiluaren hurrengo saiorako uztea.

Aurkezpena oinarri harturik, labur-labur gogoratzen du zer prozedura jarraitu behar den, erregelamenduaren arabera, karguak berritzeko: Gizarte Kontseiluko idazkariak berritu beharreko kargu guztietako hautagaitzak bildu ditu (Kontseiluko kideek proposatutako pertsonak), eta zerrenda bakar bat prestatu du berritu beharreko kargu bakoitzeko (bertan biltzen dira bildutako hautagai guztiak). Ondoren, esandako hautagai horien zerrendak helarazi dira Gizarte Kontseilura, eta, hala, bozketen aurretik ezagutu eta balioetsi ahal izango dituzte proposamenak. Bozketa, bestalde, saio honetan egingo da.

Pantailan, saio honetara arteko karguen zerrenda biltzen da (lehendakaria, lehendakariordea batzorde iraunkorreko kideak eta Plan Estrategikorako Lan Batzorderako izendatutako pertsonak).

Ondoren, proposatutako hautagaitzak zehazten dira bozkatzeko, eta pantailan agertu dira. Hala, azaldu du Estrategia Bulegoak oraindik ere ez duela informaziorik erakunderen baten ordezkari gisa izendatutako pertsonaren gainean, eta horregatik ez dela agertzen jasota (zerrenda hori jasotzea espero da, zerrenda osoa hemendik gutxira eskura izateko).

Lehendakari eta lehendakariorde hautagaitzak bozkatzeko, bi pertsona proposatu dira:

Consejo Social de la ciudad, es decir el presidente o presidenta y el vicepresidente o vicepresidenta. Se continuará explica, Kepa Korta, con la elección de los miembros integrantes de Comisión Permanente, que según señala, estará formada por la Presidencia y Vicepresidencia y 13 integrantes del Plenario elegidas por el mismo, a propuesta de cualquiera de sus miembros

También estaba previsto la designación en esta sesión de dos personas miembros para la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico, pero propone trasladar esta última elección a la siguiente sesión del Consejo social.

Apoyándose en la presentación recuerda brevemente el procedimiento que se sigue, según el reglamento, para la renovación de cargos: La Secretaria del Consejo Social ha procedido a la recogida de todas las candidaturas de los cargos a renovar (propuestas por las personas miembros del Consejo), elaborando un único listado por cada cargo a renovar (en el que se aglutinarán todas las candidaturas recogidas). Posteriormente, se ha enviado los listados de dichas candidaturas a los miembros del Consejo Social, de modo que puedan conocer y valorar las propuestas con antelación a las votaciones que tienen lugar en la presente sesión.

En la pantalla se muestra la relación de cargos hasta la presente sesión (presiente, vicepresidente, las y los miembros de la Comisión Permanente y personas designadas para la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico).

A continuación, se detallan las candidaturas que se han propuesto para su votación y se muestran en pantalla, explicando que, la Oficina de estrategia aún no cuenta con la información sobre la persona designada como representante en alguna de las instituciones, por eso no aparece reflejada (se espera contar con dicha relación para tener el listado completo en breve).

Para proceder a la votación de las candidaturas para presidente o presidenta, se indican las personas propuestas:

- **Daniel Zulaika** (herritar merezimenduaren domina)
- **Kepa Korta** (Gizarte Kontseiluko orain arteko lehendakariordea eta Estrategia Bulegoko zuzendaria, eta, hortaz, Gizarte Kontseiluko eskubide osoko kidea).

Kepa Kortak eskerrak eman ditu hautagai izendatu izanagatik, baina uko egin dio hautagaitzari, Gizarte Kontseiluko aholkularitza teknikoan buru-belarri jardun ahal izateko; hori dela eta, Daniel Zulaika bakarrik geratu da hautagai.

Bozketa hasi aurretik, Elkartuko ordezkari Raquel Barrosok hartu du hitza, eta adierazi du antza denez gaizki-ulertu bat gertatu dela bere erakundean prozesu horretan, eta ez diotela uko egin nahi Batzorde Iraunkorrean egoteari. Kepa Kortak erantzun dio ezarrita zeudela prozesua arautzeko prozedura eta hautagaiak aurkezteko epeak, eta eskatu du saioan gerorako uzteko Batzorde Iraunkorreko hautagaitzari buruzko eztabaida.

17:32an egin dute bozketa. Horretarako, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako bozka-txartelak banatu dituzte, adierazitako hautagaiari baiezkoa, ezezkoa edo boto zuria emateko.

Gizarte Kontseiluko kide bakoitzak modu indibidualean eman du botoa eta kontaketa egin dute ondoren. Hala, 30 baiezkorekin eta lau boto zurirekin, **Daniel Zulaika izendatu dute Gizarte Kontseiluko zuzendari.**

17:36an, Gizarte Kontseiluko zuzendari berri Daniel Zulaikak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie izendapenagatik. Hala, interesa agertu du eta adierazi die onena opa duela Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako eta egiten duen lanerako.

Ondoren, lehendakariorde izateko proposatutako pertsonak aurkeztu dira:

- **Pedro Miguel Etxenike** (Gizarte Kontseiluko lehendakari kargua uzten duena)
- **Kepa Korta** (Gizarte Kontseiluko lehendakariorde kargua uzten duena eta Estrategia Bulegoko zuzendaria)

- **Daniel Zulaika** (medalla mérito ciudadano)
- **Kepa Korta** (vicepresidente saliente del Consejo Social y director de la Oficina de Estrategia y como tal miembro de pleno derecho del Consejo Social).

Kepa Korta agradece ser propuesto, pero renuncia a optar a la candidatura, para poder dedicarse plenamente a su papel de asistencia técnica en el Consejo Social, por lo que la candidatura se limita a Daniel Zulaika.

Antes de proceder a la votación, la representante de Elkartu, Raquel Barroso, interviene para señalar que parece haber habido un malentendido por parte de su organización en este proceso y que no desean renunciar a estar en la Comisión Permanente. Kepa Korta le responde que el procedimiento que regula el proceso y los plazos para la presentación de candidaturas ya estaban establecidos y emplaza a un momento posterior de la sesión el debate de la candidatura a la Comisión Permanente.

A las 17:32 se procede a la votación. Para ello se reparten las papeletas en las que de manera bilingüe se recogen tres opciones "si-no-voto en blanco", para la candidatura señalada.

Cada miembro del Consejo social, de forma individual cumplimenta la papeleta y se procede al conteo. Con 30 votos "si" y 4 votos "en blanco", **Daniel Zulaika queda nombrado Presidente del Consejo Social.**

A las 17:36, Daniel Zulaika, nuevo presidente el Consejo Social toma la palabra agradeciendo el nombramiento y manifestando su interés y buenos deseos para el funcionamiento y la labor que desarrolla el Consejo Social.

A continuación se procede a presentar las personas propuestas para la vicepresidencia:

- **Pedro Miguel Etxenike** (presidente saliente del Consejo social)
- **Kepa Korta** (vicepresidente saliente del Consejo Social y director de la Oficina de Estrategia)

<p>• Pilar Lekuona (Herritar Merezimenduaren Domina, Gipuzkoako Erizaintzako Elkargo Ofiziala).</p> <p>Kepa Kortak azaldu duenez, Pedro Miguel Etxenike ez da aurrerantzean Gizarte Kontseiluko kide izango (presidente kargua utzi ostean); hori dela eta, ezin du hautagaitza honetan parte hartu. Hortaz, Kepa Korta eta Pilar Lekuona bakarrik lirateke. Kepa Kortak berriro ere eskerrak eman ditu izendatu izanagatik, baina uko egin dio hautagaitzari; hala, Pilar Lekuona bakarrik geratu da hautagai.</p> <p>17:41ean izan da bozketa indibiduala adierazitako hautagaitzarako, hiru aukerak bi hizkuntzetan idatzitako txartelen bidez (baiezkoa, ezezkoa edo zuria).</p> <p>29 baiezko botorekin, hiru boto zurirekin eta boto baliogabe batekin, Pilar Lekuona izendatu dute Gizarte Kontseiluko lehendakariorde, eta hitza hartu du izendapena eskertzeko eta aurrez aurre duen erronkarekiko interesa agertzeko.</p> <p>4.- Plan Estrategikorako Lan Batzordearen izendapena</p> <p>Kepa Kortak adierazi du sei hautagaitza aurkeztu direla, pantailan erakutsita bezala, baina haietako lau ez zirela osoak (hiruzpalau pertsona hautagaitza bakoitzerako proposatuta). Hortaz, bozketa bizkorrago egin ahal izateko, hautagaitza horiek aurkeztu dituzten pertsonen artean hitz egin eta adostu da proposamena antolatzea eta integratzea bi hautagaitza osoetan (proposatutako pertsonak agertzen baitziren haietan). Gizarte Kontseiluko kideek eragozpenik izan ezean, bi hautagaitza horiek bozkatuko dituztela.</p> <p>Ondoren bildu dituzte bozkatuko diren hautagaitzak, proposatutako erakundeen arabera izendatuta eta hautagaitza horiek osatzen dituzten erakundeak xehatuz.</p> <p>• A hautagaitza (Asodeus-ek aurkeztua): desgaitasun fisikoak dituzten pertsonak,</p>	<p>• Pilar Lekuona (Medalla mérito ciudadano, Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa).</p> <p>Kepa Korta explica que Pedro Miguel Etxenike, (al finalizar su cargo como presidente) ya no forma parte del Consejo Social, por lo que no puede tomar parte de la presente candidatura, la cual se reduciría a Kepa Korta y Pilar Lekuona. Nuevamente Kepa Korta agradece ser propuesto, pero renuncia a optar a la candidatura, de modo que la candidatura queda limitada a Pilar Lekuona.</p> <p>A las 17:41 se procede a la votación, de manera individual, por medio de las papeletas bilingües con las tres opciones “si-no-voto en blanco”, para la candidatura señalada. Con 29 votos “si”, 3 votos “en blanco” y 1 nulo, Pilar Lekuona queda nombrada Vicepresidenta del Consejo Social y toma la palabra para agradecer su nombramiento y su interés ante el reto que se le presenta.</p> <p>4.- Nombramiento de la Comisión Permanente</p> <p>Kepa Korta manifiesta que se han presentado 6 candidaturas, tal y como se ha mostrado en la pantalla, pero cuatro de las mismas no eran candidaturas completas (3-4 personas propuestas en cada candidatura). Así pues, para poder realizar la votación de manera más ágil, se ha hablado y acordado con las personas que han presentado dichas candidaturas el ordenar e integrar sus propuestas en las dos candidaturas completas (puesto que las personas propuestas ya aparecían en éstas). Si las y los miembros del Consejo Social no tienen inconveniente se votarán estas dos candidaturas.</p> <p>Las candidaturas que se van a votar se recogen a continuación, nombradas según las entidades que las han propuesto y detallando las entidades que conforman dichas candidaturas:</p> <p>• Candidatura A (presentada por Asodeus): Personas con discapacidades físicas,</p>
--	--

<p>Eusko Jaurlaritzza, Ingurumen Kontseilua, Kirol Kluben Kontseilua, Berdintasun Kontseilua, Lankidetzza eta Hezkuntza Kontseilua, Donostiako alkatea, Etorकिन Kolektiboa (Asodeus), Estrategia Bulegoa, Ostalaritzako Enpresarien Elkarte, Turismo Sozietatearen Kontsulta Kontseilua, Herritarren Partaidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.</p> <ul style="list-style-type: none"> • B hautagaitza (alkateak aurkeztua): Merkataritza Kontseilua, Tabakalera, Donostia Turismoa, Loiolako Erriberak Auzotar Elkarte, EHU/UPV, DIPC, Ingurumen Kontseilua, Matia Fundazioa, Bera-Bera RT Merezimenduaren Domina, Dbus, Gizarte Ekintzako Kontseilua eta María Arzallus (herritarra). <p>Raquel Barroso Elkartuko ordezkariak planteatutako auziari heldu diote berriro ere, eta Kepa Kortak adierazi du zailtasunak izan direla martxan dagoen proiektu bat berriro ere zabaltzeko; halere, jaso du Elkarturen interesa, eta Gizarte Kontseiluko lehendakari eta lehendakariordeari dei egin die ikusteko nola hartuko diren kontuan Elkarturen ekarpenak Batzorde Iraunkorrerako, esparru formaletik kanpo.</p> <p>Bozketara bueltatuz, Udaleko idazkari Juan Carlos Etxezarretak azaldu du zer-nola bozkatzen duen Gizarte Kontseiluak, eta bi modu daudela saio honetan bozketa egiteko. Erabaki da oraingo honetan nola jokatu den; hala, gehiengo soila duena aukeratuko da (aretoan dauden Gizarte Kontseiluko kideen erdiak gehi bat, alegia).</p> <p>17:57an, txartelen bidez (baiezkoa, ezezkoa edo zuria) bozkatu dira Batzorde Iraunkorreko hautagaitzak. Hainbat minutuko hausnarketa aldiaren ondoren, txartelak jaso eta boto zenbaketa egin da. Bost boto jaso ditu Asodeusek proposatutako hautagaitzak; 22 boto alkateak proposatutakoak, eta boto zuriak bost izan dira.</p> <p>Zenbaketaren ondoren, Juan Carlos</p>	<p>Gobierno Vasco, Consejo Medioambiente, Consejo Clubes Deportivos, Consejo de Igualdad, Consejo Cooperación y Educación, alcalde de San Sebastián, Colectivo de Inmigrantes (Asodeus); Oficina de Estrategia; Asociación de Empresarios de Hostelería; Consejo consultivo de la Sociedad de Turismo; Participación Ciudadana y Diputación Foral de Gipuzkoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Candidatura B (presentada por Alkatea): Consejo de Comercio; Tabakalera; San Sebastián Turismo; Loiolako Erriberak, Auzotar Elkarte; EHU-UPV; DIPC; Consejo de Medio Ambiente; Fundación Matia; Medalla al Mérito-Bera Bera RT; Dbus; Consejo de Acción Social y María Arzallus (ciudadana). <p>Se retoma la cuestión planteada por la representante de Elkartu, Raquel Barroso, y Kepa Korta señala la dificultad para abrir nuevamente un proceso ya en marcha, no obstante se recoge el interés de Elkartu y emplaza al presidente y la vicepresidenta del Consejo Social para ver cómo podrán tenerse en cuenta las aportaciones de Elkartu para la Comisión Permanente, fuera del marco formal.</p> <p>Volviendo a la votación, Juan Carlos Etxezarreta, Secretario del Ayuntamiento, explica la forma en la que el Consejo Social vota y las dos posibilidades de llevar a cabo en esta sesión la votación. Se decide cómo se va a proceder en esta ocasión, de modo que quedará elegida aquella que obtenga la mayoría simple (la mitad más uno de las personas miembros del Consejo Social que se encuentran en la sala).</p> <p>A las 17:57 a través de papeletas (con las opciones "si-no-en blanco") se procede a la votación de las candidaturas para la Comisión Permanente. Tras unos minutos de reflexión se recogen las papeletas y se procede al recuento. Cinco votos para la candidatura propuesta por Asodeus; 22 votos para la candidatura propuesta por el alcalde y cinco votos entre "en blanco".</p> <p>El secretario, Juan Carlos Etxezarreta, tras</p>
--	--

Etxezarreta idazkariak adierazi du badela gehiengo soila; hori dela eta, onartuta geratu da Batzorde Iraunkorra osatzeko alkatearen proposamena.

Amaia Las Heras Arrats Emakumeen Elkarteko ordezkariak adierazi du ez dela izan samurra hautagaitza baten edo bestearen aldeko hautua egitea, bozketak sistema dela eta (bi zerrenda itxi). Hala, proposatu du aurrera begira berrikus dadila proposamenak egiteko modua.

Kepa Kortak erantzun du sistema hori ezartzen dela bermatzeko begirada guztien presentzia (batzordeak ez baitauka mekanismo bat begirada eta sektore guztien presentzian oreka lortzeko). Gaineratu du arrazoi horregatik beragatik egin zela berdin aurreko legealdian ere.

Eneko Goia Donostiako alkateak azaldu du oraingoan ez direla hautagaitza asko aurkeztu eta "lau samarra" izan dela.

Era berean, adierazi da nolabaiteko gaizkiulertua izan dela zerrenda oso bat proposatzeko beharraren inguruan, eta azaldu dute hurrengoetarako saiatuko direla argiago egiten eta azaltzen.

*18:08an bozkatu dute aukeratutako hautagaitza (B hautagaitza, alkateak aurkeztua), eta azaldu dute nola bete behar den txartela, hautagaitza hori behin betiko onartzen duten ala ez baieztatzeko (bai, ez, zuria). Bozkatu eta botoak zenbatu ostean, 23 baiezko, hiru ezezko, lau zuri eta boto baliogabe bat izan dira. Hala, 18:12an, **behin betiko onartuta geratu da Batzorde Iraunkorraren osaketa. (B hautagaitza, alkateak aurkeztua),***

5.- Plan Estrategikorako Lan Batzordearen izendapena

18:13an, Kepa Kortak labur-labur gogorarazi du Plan Estrategikorako Lan Batzordea izendatzeko erregelamendua jasotzen duen ordenantza. Han ezartzen dira esandako batzorde hori osatzen duten erakundeak, Gizarte Kontseiluak aukeratutako bi pertsonekin batera jardungo

el conteo, confirma que hay mayoría simple, por lo que ya queda aprobada la propuesta del alcalde para la composición de la Comisión Permanente.

La representante del Consejo de la Mujer-Arrats, Amaia Las Heras, señala que le ha resultado complicado decantarse por una u otra candidatura, con este sistema de votación (con dos listas cerradas) y propone, para futuras ocasiones, revisar cómo hacer las propuestas.

Kepa Korta responde que se establece este sistema para asegurar la presencia de las distintas miradas (ya que la Comisión no tiene un mecanismo para asegurar un equilibrio en la presencia de distintas miradas y sectores); señala que por esta misma razón en la anterior legislatura también se hizo de igual modo.

Eneko Goia, el alcalde de Donostia / San Sebastián, añade que esta vez no se han presentado muchas propuestas candidaturas, ha sido "un poco plano".

Se comenta también que parece haber habido cierto grado de malentendido respecto a que tenía que proponerse una lista completa y se señala que para la próxima vez se intentará hacerlo y explicarlo de forma más clara.

*A las 18:08 se procede a la votación de la candidatura seleccionada (la candidatura B, presentada por Alkatea) explicándose como rellenar la papeleta para votar si se aprueba o no definitivamente dicha candidatura ("si-no-en blanco"). Tras la votación y el conteo, y con 23 votos a favor, tres votos "no", cuatro votos "en blanco" y uno "nulo", a las 18:12 **queda aprobada la composición de la "Comisión Permanente" (Candidatura B. presentada por Alkatea).***

5.- Nombramiento de dos miembros para la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico

A las 18:13 Kepa Korta recuerda brevemente la ordenanza donde se recoge el reglamento para la designación de la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico, donde se establecen las organizaciones que forman parte de dicha comisión, junto con las dos personas elegidas

<p>duinak.</p> <p>Azaldu duenez, jarraitutako prozesuan izan diren bost proposamenetako batzuek (Plan Estrategikorako Lan Batzordean parte hartuko duten bi pertsona horiek aukeratzeko) Lan Batzorde horretan lehendik ere badauden pertsonak aurkezten dituzte hautagai gisa; hori dela eta, prozesua zuzen egiteko, batzorde hori lehendik ere osatzen duten erakundeen zerrenda osoa igorriko da, Gizarte Kontseiluko kideek hautagaitzak prestatu ahal izan ditzaten. Hala, aurretik proposatu bezala, Gizarte Kontseiluaren hurrengo saiorako utziko dute azken bozketa hori.</p> <p>Kepa Kortak proposatu du Batzorde Iraunkorraren bilera bat ezartzea, eta, batzordeak eta Gizarte Kontseiluko lehendakariak eta lehendakariordeak onartzen badute, urte amaiera baino lehen egitea Gizarte Kontseiluaren saio bat, aurrekontu-proposamenaren berri emateko eta haren mamia eztabaidatzeko.</p> <p>Gogorarazi du Herritarren Partaidetza Sailaren webgunean dagoela jasota Gizarte Kontseiluari buruzko informazio guztia, baita erregelamendua eta saioen xehetasunak ere. Hala, bere burua eskaini du Gizarte Kontseiluaren eta haren jardunaren gaineko zalantzak argitzeko edo edozer informazio emateko, baita Gizarte Kontseiluan jorratu nahi diren gai-proposamenak biltzeko ere.</p> <p>Amaitzeko, eskerrak eman dizkie Gizarte Kontseiluko kideei, bilerara agertu eta parte hartu izanagatik.</p> <p>6.- Galderak eta eskaerak</p> <p>Ez dago galderarik, ez eta eskaerarik ere.</p> <p>Saioaren amaiera 18:17an amaitu da saioa.</p>	<p>por el Consejo Social.</p> <p>Explica que algunas de las cinco propuestas que ha habido en el proceso seguido (para elegir a estas dos personas que tomarán parte de la Comisión de Trabajo para el Plan Estratégico, presentan candidaturas de personas que ya están en dicha Comisión de Trabajo, por lo que, para realizar el proceso correctamente, se remitirá el listado completo de las organizaciones que ya forman parte de dicha Comisión, para que las y los miembros del Consejo Social puedan proceder a elaborar sus candidaturas, trasladándose, tal y como se había propuesto anteriormente, esta última votación a la siguiente sesión del Consejo Social.</p> <p>Kepa Korta propone establecer una reunión de la Comisión Permanente, y si ésta comisión y el presidente y la vicepresidente del Consejo Social lo aprueban, realizar una sesión del Consejo Social antes de final de año, para dar cuenta de la propuesta de presupuestos y generar su debate en el marco del Consejo Social.</p> <p>Recuerda que toda la información sobre el Consejo Social, su reglamento y sesiones se encuentra recogida en la página web del Departamento de Participación Ciudadana y se ofrece personalmente para facilitar cualquier información o aclarar dudas respecto al Consejo Social, sus actividades y recoger propuestas de ámbitos o temas que se desea que se traten en dicho Consejo Social.</p> <p>Y finaliza agradeciendo a las y los miembros del Consejo Social su asistencia y participación.</p> <p>6.- Ruegos y preguntas</p> <p>No se producen</p> <p>Cierre de la sesión La sesión se cierra a las 18:17 horas.</p>
---	---

Donostia / San Sebastián, 2019/10/29